



KOMUNIKAZIO-JARDUERA:

Prozesuak

Jarduera honetan ikasleek marrazki kolektibo bat sortuko dute, non prozesu bat ilustuko den. Horretarako, bi aukera daude:

Lehena, irakasleak proposatzea ikasleak marratzu behar duen prozesua: landare loreduen zikloa, uraren zikloa, ibilgua, eta abar. Behin irakasleak gaia zehaztuta, ikasleak taldeka bilduko dira, eta, ondoren, prozesuaren zati bat marraztuko du ikasle bakoitzak txandak errespetatuz.

Bestea, ikasleei prozesu bat marratzu behar dutela azaltzea, baina prozesu zehatz bat esleitu gabe. Horren ordez, 1. ikasleak berak nahi duen objektua marratzu beharko du paperean. 2. ikaslearen txanda iristean, honek 1. ikasleak marraztutako objektuak parte hartzen duen prozesuaren zati bat marraztuko du. 3. ikasleak aurreko bi ikasleen lanak ikusi eta prozesua jarraitu beharko du, egoki deritzon moduan. Hala jarraituko dute taldekide guztiek parte hartu arte, edo prozesua amaitu arte.

Kasu honetan, xedea marrazketa bidezko komunikazio gaitasuna lantzea denez, talde bereko ikasleek ezingo dute elkarrekin hitz egin bakoitzaren irudia azaltzeko. Beraz, komenigarria da lana ixilik egitea eta ahalik eta kontzentrazio handienarekin.

Aukera edozein dela ere, ikasleek beste erronka bat ere izango dute: batera sortzera doazen irudian koherentzia mantentzea. Beraz, 1. ikasleak arkatzez marratzu badu denek hala egin beharko dute, edo, aldiz, gezi gorriak marratzu baditu besteek ere hala egin beharko dute.

GELAKO MATERIALAK

Jarduera hau egiteko nahikoa izango dira papera eta ikasleek dituzten material ezberdinak.



KONTUAN IZAN

- **HELBURUA**

Jarduera honen helburua ikasleek irudien arteko koherentzia eta osotasuna kontuan hartzea da, prozesu bat bere osotasunean ulertu eta transmititzeko, bai eta irudi bidez komunikatzeko gaitasuna lantzea ere.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

Prozesua bukatzea, koherentzia izatea eta irudi bidez komunikatzeko ahalegina egitea.

